

Elkarrizketa eta elkarlana

BADIRUDI gero eta jabetuago gaudela euskalgintzako indarrak bateratu beharraz; areago, alor horretan diharduten erakunde publikoen eta erakunde sozialen artean elkarrizketa eta elkarlana eratu, zabaldu eta sendotu beharraz gero eta adierazpen gehiago entzuten da. Dena aldetik harreman berrietrako borondate ona agertzearekin batera, horiek bideratzeko premia larria nabarmendu izan da alde askotatik. Dena azpian kezka handia agertu da: urte luzeagitan eta sarriegi inkomunikazioa eta konfrontazioa nagusitu direla, alegia. Horien zergatiak buruzko eztabaidak ere entzun izan ditugu, gehienetan adostasunik gabe seguruenik. Baina autokritikak ere entzun dira; heterokritikak gehiago agian.

Beharra eta nahia agertzearekin batera, aurrerako urratsa daukagu egin beharra, galdera praktikoei erantzuna emanez, aldarrikapenetan antzu ez gaitenez. Zergatik gertatzen da oraindik zaila harreman horiek gorpuztea? Zeintzuk dira horietarako baldintzak eta oinarriak? Nolako forma hartu behar dute? Zein metodo erabili behar da elkarrizketa sistematikoa bideratzeko eta elkarlan irankorra heltzeko?

EKBren 10 urtetako ahaiegina

EKB (Euskal Kulturaren Batzarrak)rentzat ez da hori inolako kontzientzia edo taktika berria. Orain dela 10 urte sortu zenetik, etengabe aldarrikatu du erakunde publikoen eta erakunde herritarren arteko elkarrizketa eta elkarlana egokiago gauzatu beharra, euskararen berreskurapenerako politika zentzuzkoaren barruan. Bere aldetik horiek lantzeko asmoa eta erabakia maiz agertzeaz gain, bere jokabide praktikoan ere erakutsi ahal izan du horretarako borondatea.

Kezka nagusienak direla du EKBk 10 urtetan arazo hori. Ildo horretatik saiatu du

elkarlanaren mezua gauzaten; hainbat ekintzatan lortu ahal izan da. batzutan erraz eta egoki, bestetan ez hain egoki. Dena dela, unean uneko ekintza eta programetan agertu izan da gehienbat elkarlana; eta behin baino gehiagotan neke handiegia ipini behar izan da susmo txarrak eta aurreritziak gainditzen.

Elkarlanak elkarrizketa eskatzen

Antza denez, inor gutxi dago gustora euskalgintzan erakunde publikoen eta erakunde herritarren artean orain arte izan den elkarlanarekin. EKB ere ez zegoen gustora; eta, bestelako indar eta erakunde sozialekin eta maila guztietako erakunde publikoekin bezala, HPINekin elkarrizketak irekitzeko ahaiegina berezia egitea erabaki zuen bere III. Batzarre nazionalan. Urtebeteko lanaren ondoren, elkarlanerako oinarrien dokumentua onartuta geratu zen, aurrera begirako ekintza eta programak bideratzeko marko iraunkor gisa.

Urrats garrantzizkoa izan da hori, EKBren ikuspegitik. Baina ondo jabetuta gaudu oraindik hainbat kontradikzio geratzen dela gaitzeko. Bestelako alorretan bezala, euskalgintzan ere, eta hemen bereziki, erakunde publikoen eta erakunde sozialen arteko elkarrizketaren eta elkarlanaren "kultura" —orain esan ohi denez— landu eta zabaldu behar gaudela usie dut. Hori ez da lortzen borondate ona agertze hutsaz, batez ere luzaroko kontrako jokabideak irauli behar direnean.

Aipaturiko dokumentuaren lehen abiaburuan honako hau dago idatzita: «... hizkuntzaren berreskurapenean gizarte osoaren parte hartzea eta protagonismoa ezinbesteko baldintza dugu. Zentzu horretan, euskararen normalakuntzarako iharundubideetan erakunde publikoek funtsezko garrantzia hartzen dute beren eginkizun espezifikoenatik. Bestalde, gizartearen antolakuntzaren premia dugu, hor erakunde herritarrek beren lekua eta funtzio

propioa dutelarik. Erakunde publiko eta erakunde herritarren arteko harreman normalizatu eta elkarrekiko errekonozimendua izango dira elkarlanaren euskararen normalakuntzaren bidean aurrera egiteko oinarri funtsezkoak».

Lehen baldintza, agian oinarritzat, dago hortxe ipinita, elkarrizketa-elkarlanak bidegarriak izango badira: alde batekoen eta bestekoengatik eta erantzukizuna aitortzea, alegia. Horiek definitzea izango da hurrengo lana. Horretan ados jarri gero, bestelako arazoak konpontzea askoz errazagoa izango da.

Dena dela, eta metodoari dagokionez, adostasuna eta elkarlana bideratuko badira, elkarrizketa behar da aurrenik, inkomunikazioaren hormak hausteko eta mesfidantzako susmo txarrak suntsitzeko. Elkarrizketa dago zabaldu beharra, elkarrizketa dago sakondu beharra. Erakunde publikoen eta erakunde herritarren zuzeneko elkarrizketa.

Joseba Arregik azken aldiko artikuluren batutan nabarmendu izan du elkarlanerako aurrenik bi aldetakoen helburuak eta estrategia argitu behar direla. Elkarrizketa horretarako da, hain zuzen ere. HPINen eta EKBren arteko elkarrizketen lehen egunetik eta lehen orduetik, helburuen —estrategiaren— puntuak mahairatzeari, eztabaidatzeari eta argitzeari heldu genion.

Elkarlanerako helburuak, estrategiak, baldintzak, oinarriak, metodoak argitzea eztabaida sozialak garrantzi handia du, gero horren formak eta ekintzak zahazteko, dinamika berria ireki behar den honetan.

Uretako dinamika okerra zuzentzeko aukera ez gurek galdu behar.

PAULO AGIRREBALTZATEGI

EKB-KO LEHENDAKARIA

Parisetik zetorren haize berria

BIGARREN Gerrate mundialaren ondoren, Mendebaleko kapitalismoaren metropoliak izugarriko garapen ekonomiko zein egonkortasun soziala izatera heldu ziren. Bertako langileriak eta erdi mailako kapa sozialek etekin material zein lorpen sozial ugari irabazten zituztelarik; erakunde sozialak oso sendo eta eratuak zuden, eta egoera horietan, ohi denez, erreformisten kontrolpean.

Testuinguru horretan, kapitalismoaren onurak goraipatzen ziren, langileriatan bezatasuna betirako joz, bere ekanketa goraipatuz. Gutxi batzu dira Europa osoan, erotzat hartuak, iraultza sozialaren beharraz eta ahalbidetz sinisten dutenak.

Horregatik, 1968ko gertaerak eztanda edo lurrikara sozial baten itxura hartu zuen mendebaldeko gizartearen, ohizko egia borobilak kolokan jarri, gazteen artean batez ere. Nola eman zitekeen tainainko errebolta, hain ondo bizi zen gaztedi baten eskutatik? Kontsumismoan ahiutako gazterik beste baloreen falta botatzen al zituen? Soziologiak idatzitako txosten marduletan honelako galderak luzatzen dituzte. Frantzia bertan, eztabaida filosofikoetan baino, bere interesen gaitetik zeuden ugazaba zein banka-gizonek izugarriko

dardarra sentitu zuten euren bizkarrezurretan. Burgesiak, ikara, izua ezagutu zuen.

Ikasleak izan ziren errebolta hori piztu zuten zuzia, baina langileria ez zen atzean gelditu. Grebak, bandera gorriak atetan ezarri lantegi- okupazioak, Frantzia osora zabaldu ziren. Maiatzaren hamahiruan, milioitik gora langile zein ikasle zein osaturiko manifestaldi batek Pariseko kaleak bete zituen, polizia ez zen gai izan kaleak kontrolpean izateko. Unibertsitateko paretetan, mundu guzira zabalduko zen mezua idatzi zuten: «Errealistak izan gaitzen, ezinezkoa eska dezagun». Eta Frantziaren atzetik, bolbora babilizan, Italia, Ingalaterrara... hedatu joan zen gatazka soziala.

Soziologion ondoren, ezkerreko zein eskubiko intelektuak organikoek, errebolta eta borroka horien adierazpen eta zergatiak irizitu ugari eta kontrajarriak plazaratu zituzten. Batuzten uestez, arestian aipatutako ideari eusten zioten; miseria eta langabezia ez zegoenez, arrazoi materialetan oinarritutako arazoak baino, bizimodu eta zibilizazio krisialdiari leporatzen zioten gertatutakoak; besteek, ordea, XIX. mendeko mugimendu erromantikoen azken aztarnatzat jo zuten, sukur baten gisara desagertuko zela aditzera emanez; baziren ere gertaera beste erara ikusten zutenak, hots, gi-

zarte kapitalista industrializatuak sortu dituen kontraesan berrietan, XXI. mendeko gizarte atariko nahikundeen aintzindari gisako asmo eta egitasmo agertu zirenak errebolta eta greba horietan.

Azken iritzi hau dut gustokoen. Izan ere, orainarekin baino etorkizunarekin zerikusirik duten mugimendu eta ideia berri asko (feminismo erradikala, ekologia, jarrera alternatiboak, disidentziaren fenomenoak) egoera horretan sortu ziren edo bere haziaz eraldatu. Horiek ez du esan nahi, ohizko asmo eta eskaerak ez zuten indarririk izan. Tamaina horretarako eztanda batean, oraina eta etorkizuna oso nahasia egoten da, gaur egun, aldearritzioko egoera batean ematen den bezala. Honekin hauxe esan nahi dut, ene konbentzienduarena da, egoera horretan gertatutakoa ez dela soil soilik aintzinatik zetorren ondorio emankorra, ezta ere ugaritasun-gizarteak sortutako diarra eta betiko lasaigarria, gizarte burges honek eskatzen dituen aldaketa eta berriztatzen sakonaren aldeko eztanda paradigmatikoa, behin eta berriro adieraziko dena, noiz eta nola ez badakigu ere.

JOXE IRIARTE 'BIKILA'

ZUTIK-EKO KIDEA

BERRIAKZIRI



XABIER ARZALLUZ
EAJko lehendakaria
TRIBUNARIA

«Partidu Popularrak

hauteskundeak irabazi eta deituko bagintu, nire uestez ez genuke arazo handirik izango hitz egiteko»



MIKEL ATXAGA
Kazetaria
AKGIA

«Gaur egun izan.

dako zaputzak ahaztu egin behar dira, egunkari bat kallean dago eta txukun ari da lanean; beraz, dirulaguntza eskaini behar zaio»



KEXU ARZALLUZ
Bertsolaria
GALTZAUNDI

«Iparraldean ez dago ia bertsoaritaririk»



JOXEAN TOLOSA
Pilotaria
EL MUNDO

«Espero dut nafar

gehienak ez izatea Eugiren antzekoak, kasta baino zerbait garrantzitsuagoa falta baitzaio, burua»

ZAKILIXUT

- dia (Ban.) 35era
- e (ONCE) 36ra
- i (Amaya) d.b.
- Lotus) 38ra
- idor) 39ra
- uevas (Ban.) .. 40ra
- pala (ONCE) . 41era
- ia (Amaya) .. 44era
- Sicasal) d.b.
- Amaya) d.b.
- (Ban.) 45era
- ONCE) d.b.
- (Amaya) 48ra
- p. (Lampre) ... 49ra

Mendiko Saria

- 1. A. M. Diaz (Kelmel) . 17 puntu
- 2. G. Camacho (Kelmel) . 16 puntu
- 3. M. Lietti (Lampre) ... 7 puntu

Tarteko Helmugak

- 1. F. Espinosa (Clas) 9 puntu
- 2. Fontanelli (Navigare) . 7 puntu
- 3. M. Lietti (Lampre) ... 4 puntu

Esprin Berezi

- 1. M. Lier
- 2. Fonta
- 3. A. S



© Orlaiaqak